

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

**Foru Gobernu Kontseilaren 192/2021 Erabakia, apirilaren 13koa. Onespena ematea Arabako Foru Aldundiak Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Erakundearteko Komisionan duen ordezkaritza berritzeari**

Foru Gobernu Kontseiluaren ardura da Arabako Foru Aldundiak erakunde eta instituzio publiko nahiz pribatuetan dituen ordezkariak izendatzea, abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak, Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Lege Araubideari buruzkoak, bere 8. artikuluan, 9. eta 10. idatz zatietan aurreikusikoaren arabera.

Beraz, ezinbestekoa da emakumeen eta gizonen berdintasunerako erakunde arteko batzordean Arabako Foru Aldundiak izango duen ordezkaritza berritzea.

Horregatik, Diputatu nagusiaren proposamenez, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran aztertu ondoren, hau

#### ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. I eranskinean aipatzen diren Arabako Foru Aldundiko ordezkarien izendapena onartzea foru administrazioak partaidetza duen erakundeen erregistroko kodeaz identifikatutako hainbat entitatetan.

Bigarrena. Erabaki honek onartzen den egunetik bertatik aurrera izango du indarra, ALHAOn argitaratuko den eguna edozein dela ere.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko apirilaren 13a

*Diputatu nagusia*

**RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE**

*Kabinetearen eta Komunizazioaren zuzendaria*

**ELENA FERREIRA SEBASTIÁN**

*I eranskina/ Anexo I*  
*Arabako Foru Aldundiaren ordezkarien izandapenak eta kentzeak/*  
*Nombramientos y ceses de representantes de la Diputación Foral de Álava*

izandapena/nombramiento

kentzea/cese

titularra/ordezkoa  
titular/suplente

**02 DIPUTATU NAGUSIA / 02 DIPUTADO GENERAL**

256 COMISIÓN INTERINSTITUCIONAL PARA LA IGUALDAD DE MUJERES Y HOMBRES

Ainhoa Campo Arenaza, Berdintasunaren eta Giza Eskubideen zuzendaria / Directora de Igualdad y Derechos Humanos  
Emilio Soja Baillojera, Gizarte Politikaren Saileko foru diputatua / Diputado Foral de Políticas Sociales  
Ana Belén Otero Miguelez, Gizarte Zerbitzuen zuzendaria / Directora de Servicios Sociales

Nekane Zeberio Ganzarain, suplente / ordezkoa  
M. Antonia Olabarieta Ibar, titular / titularra  
suplente / ordezkoa